

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Erljiioaren irakaskuntza.

1.– Ikasturtea hasi baino lehen, adin nagusiko ikasleek eta adingabeen gurasoek edo legezko tutoreek erlijioako eskolak jaso nahi dituzten ala ez adierazi behar dute.

2.– Ikastetxeak etapa bakoitzeko maila guztietan eskainiko du Erljioa. Astean gehienez ordubete emango da. Gurasoek edo legezko tutoreek aukeratuta egingo da ikasketa hori. Ikasturte bakoitzaren hasieran egin behar da aukeraketa hori. Ikastetxeek antolaketa-neurriak hartu behar dituzte erlijio-ikasketak egiten ez dituzten ikasleek behar den hezkuntza-arreta jaso dezaten. Hor, funtsezko kompetentziak garatu beharko dira, komunitatearen zerbitzurako proiektuen bidez, eta autoestimua, autonomia, gogoeta eta erantzukizuna indartu, baita balio zibiko eta etikoak ere. Erljioa ikasten ez duten ikasleen hezkuntza-arreta taldeko tutorearen esku egongo da, ahal izanez gero.

3.– Erljio katolikoaren irakaskuntza Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean sinatutako Irakaskuntza eta Kultura Gaiei buruzko Akordioan ezarritakoari lotu behar zaio. Horretarako, erlijio katolikoa arlo gisa sartuko da Lehen Hezkuntzan, eta ikasgaia izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikastetxeek nahitaez eskaini beharrekoa, eta ikasleentzat hautazkoa izango da.

4.– Beste erlijio batzuen irakaskuntzak bat etorri behar du Espainiako Estatuaren eta Espainiako Erakunde Erljioso Ebanjelikoen Federazioaren, Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioaren eta Espainiako Batzorde Islamikoaren artean sinatutako kooperazio-akordioetan xedatutakoarekin, eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio batzuekin izenpetzen diren akordioetan xedatutakoarekin.

5.– Erljioa ikasgaiaren curriculuma zehaztea kasuan kasuko erlijio-agintaritzen eskumena da. Eskola-liburuak eta material didaktikoak erabiltzeari buruzko erabakiak eta, hala badagokio, horiek gainbegiratu eta onartzeari buruzkoak kasuan kasuko erlijio-agintaritzei dagozkie, Espainiako Estatuarekin sinatutako akordioetan ezarritakoaren arabera.

6.– Erlijio katolikoaren irakaskuntza etapako beste ikasgaien baldintza eta ondorio berekin ebaluatu behar da. Estatuarekin kooperazio-akordioak sinatu dituzten erlijioen irakaskuntzaren ebaluazioa akordio horietan ezarritakoari lotu behar zaio.

7.– Berdintasun-printzipioa eta lehia askea bermatzeko, erlijioiko ikasketen ebaluazioan jasotako kalifikazioak ez dira kontuan hartuko ikasketa-espedienteen arteko lehia dakarten deialdietan, ez eta ikasleak onartzeko prozesuetan lehiara jo behar denean eskatzaileen arteko hautaketa egiteko.